

# NUEVOS EXTRACTOS

DE LA REAL SOCIEDAD BASCONGADA  
DE LOS AMIGOS DEL PAÍS  
EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA



Discursos pronunciados en el Acto de Ingreso  
ENKARNI GENUA  
Amiga de Número

Suplemento 26-G del Boletín de la RSBAP

DONOSTIA – VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN  
2021-02-28



Luis Elícegi, Presidente de la Real Sociedad Bascongada en Gipuzkoa, Enkarni Genua, nueva Amiga de Número



Ander Letamendia, Amigo de Número de la Bascongada.  
Enkarni Genua nueva Amiga de Número



Enkarni Genua



Luis Elícegi, Ander Letamendia y  
Enkarni Genua nueva Amiga de Número



Martin eta Erreka Mari



Manolo Gomez eta Enkarni Genua





Al acto de Ingreso en la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País tuvo lugar el 28 de febrero de 2021 en el Teatro Victoria Eugenia de San Sebastián dentro de la celebración de los 50 años de actuaciones de *Txotxongillo Taldea*. Protagonizan ‘Erreka Mari’ las marionetas del grupo, acompañadas con la txalaparta de Lara Mitxelena e Itziar Jauregi. Xabier Otaegi presentó el espectáculo.

Estuvieron es este acto amigos, personas del arte y de la cultura, el Responsable de la Programación de Teatro y Danza de la Ciudad, Norka Chiapuso, la Alcaldesa de Tolosa, Olatz Peon, Idoya Otegui, Directora de TOPIC, el Alcalde de San Sebastián, Eneko Goia.

## XABIER OTAEGIREN AURKEZPEN HITZAK

---

Enkarni Genua, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen elkarteko adiskide numerario izateko sarrera zeremonia.

Eginkizuna, hemendik, eszenatokiaren albotik ikusten ari nintzela, pentsatzen ari nintzen pribilejiatu bat naizela.

Zergatik?

Ba nik zuek ez bezala, Enkarni Genua eta Manolo Gomezen Txotxongiloa gehienetan eta gehienetan horiek asko izan dira; banbalina artetik, bastidore artetik edo orain esaten den bezala: “back stage”tik ikusi ditudalako, eta hori zergatik?

Txirri, Mirri eta Txiribiton taldeko Txirri izan naizelako urte askotan eta Txotxongilorekin batera emanaldi asko egin dugulako elkarrekin.

Eta hori pribilejioa al da? Bai ba. Txotxongilo gertutik, barrutik ezagutu eta Txotxongiloren “tripak” ezagutzeko aukera eman didalako Eta horri eskerrak, egun ofizio honi buruz daki-dan asko, Txotxongilori ikasi diodalako.

Eta batez ere, Enkarni Genua eta Manolo Gómez ez direlako edonor. Maistra eta maisu handiak dira: berrizaleak, aurrera-koiak eta komunikatzaileak.

Adibide bat jarriko dizuet: aste honetantxe, nire adiskide biologo bati Covid-19ri buruz galdera bat egin nion eta pandemiaren inguruan hizketaldi luzea eskeini zidan: immunologiaz,

birologiaz eta birusek gizarteari ezarri diezaioketen eraginaz egundoko ikasketa eman zidan, lekzio majistrala eman zidan eta ... ez nion tutik ere ulertu.

Enkarni eta Manolok Txotxongilorekin adierazten dituztenak denak ulertzen dira eta oraindik gehiago, iritsi egiten dira, unkitu egiten dute, komunikatu egiten dute.

Horregatik esan dut maisuak, aurrerakoiak, berrizaleak eta komunikatzaileak direla.

Orain dela urte piloaz ezagutu nituenean, oraindik giñol zaharren tradiziozko kaxa erakusten zuten. Kaxa tradizio zaharrekoa zen baina panpinak ez, panpinak bazuten zerbait berria. Halaxe ezagutu genituen: “Txispa”, “Kattarina”, “Joxepa eta Jaxinto” eta... egun batez Sugea, Gizona eta Azeriaren ipuina aurkeztu behar zutela esan ziguten. Ni kurioso-kurioso joan nintzen panpina berriak ezagutzera eta han zeuden sugea eta gizona baina non arraio zegoen azeria?

Azeria, mendian aurkitu zuten adar oker baten zati bat zen. Hura begiratu eta ez nuen inondik azeririk ikusten baina eszenara atera zutenean ...

Bai! han zegoen azeri maltzurra!

Enkarni eta Manolok adar zati okerrari azeri itxura eta bizitza eman zioten! Handik aurrera edozein trasteri ematen zioten bizitza, nortasuna, esanahia. Berdin zion zartagi bat ala erratza bat, denek bazuten zerbait esateko eta zerbait erakusteko. Enkarni eta Manolo berriro ere berritzaile eta komunikatzaile.

Noizbait giñol-kaxa desagertu zen eta Txotxongilok eszena osoa bete zuen, argiak egokiago erabiltzen hasi ziren, musikari garrantzia handiagoa ematen hasi ziren, txotxongiloa bigarren dibisioko espektakulua izatetik “champions league”ra pasatu zuten Enkarni eta Manolok.



Baina espektakulo horrek esan dizuedan bezala erakutsi egiten zuen, emozionatu egiten zuen, komunikazio izugarria lortzen zuen.

Emanaldia amaitu eta haurrak kalerantz: Errekamariiii! esanaz ateratzen ziren edo “Itsas minez” saioaren ondoren: “Ur azpian, ur azpian egoten da gizon bat ...” kantatuz.

Eta erakutsi ere bai eta ondo erakutsi gainera.

Nire hilobatxoekin behin mendian pasa zitzaidana adibide: Bidea lokatstua zegoenez botak bustinez zikinak geramatzan gehienok. Halako batean errekatxo bat gurutzatu behar izan genuenez neuk plisti-plasta ura zanpatuz egin nuen. Nire hiloba txikiak orduan: Osaba! ez erreka zapaldu! Zikintzen ari zara! Eta era horrela Errekamari uxatu egingo duzu!

Uauuu! Haurrak ikasia zuen errekek garbiak mantendu behar direla eta hori Txotxongiloak erakutsi zion. Eta era berdinean ikasi zuten neska-mutilek “katu guztiak ez direla gaiztoak”; “mundua denon etxea dela”; “nik zuri eman eta gero aberatsagoa naizela”; “pertsonek guztiak desberdinak garelako” eta abar luze-luze bat.

Esan dut giñol-kaxa noizbait gainditu zutela eta hortik aurrera mendiak, itsasoak, hainbat fantasia erakutsi ziguten.

Pertxero batean zintzilik zegoen gabardina zahar batek eszenatokia betetzen zuen eta beste batean Manolo hegazkin batetik eroritako abiadorea zen eta hegazkina eszenan zegoen bere osotasunean!

Baina ezin zuten horretan gelditu. Sortu zituzten istoriak paperera pasa eta ipuinak argitaratu zituzten. Erabili zituzten kantuak grabatu eta hogeitapiko disko kaleratu zituzten. Hogeitapiko! Kantari famatu askok ez dute hainbeste diska plazaratu...

Euskal Herri osoa korritzeaz gainera mundu osoan ibili dira euskal txotxongiloa euskaraz zabaltzen. Tolosako Titirijai jaialdiaren sortzaile izan ziren eta egun, Tolosan dugun “Topic” zoragarri horren sorreraren kulpa handi bat Enkarni Genuarena da.

Jaun andreok, “EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKAR-TEAK” gaur Enkarni Genua Adiskide Numerarioa izendatu du eta onarpenerako aurkeztuko duen lekzio majistrala ez da asmatu berria.

Zuetako gehienek seguraski ezagutuko duzue, ikusi duzue noizbait, baina bi gauza bermatuko dizkizuet: Bata, ala ere berria, inoiz ez ikusia irudituko zaizuela eta bigarrena, uste ez zenuten zerbait ikasiko duzuela gaur berriro ikusita.

A! eta gainera, akaso garrantzitsuena, ondo pasako duzuela, dibertitu egingo zaretela.

Eta nik hasieran pribilejiatua naizela esan badizuet ere, gaur nire pribilejioei uko egingo diet eta “Back stage”tik ikusi ordez, zuen artean, hor behetik ikusiko dut:

“Erreka Mari, Euskal Herriko azken lamia”

Errekamariiii! Errekamariiii! Errekamariiii!

## HARRERA HITZAK - PALABRAS DE RECEPCIÓN

---

ANDER LETAMENDIA LOINAZ

EAEko Adiskide Numerarioa

Amigo de Número de la Bascongada

### “ERREKA MARI”, “MARIONA” eta “IPARRAGIRRE”

---

Xabier Otaegiri, guretzat betidanik “Txirri” komedianteari, entzun ondoren eta ikusiaz, etorri diren haur multzoen adina bi edo hiru urtekoa besterik ez dela, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen Gipuzkoako lehendakari den Elicegui Mendizabal jaunak eta biok erabaki genuen, ez aspertzearren, ahaleginduko nintzela hasierako hitzaldi moduan sermoi motz bat egiten, beste dena soberan bai zegoen:

“Eguerdi on guztiori, orri batzuk idatziak ekarri ditut eta orain ez irakurtzeko tentaldia sortu zait; 2021-garren urte hau biribilduta dago benetan, eta, azkenik, bietako zerbait egingo dudala uste dut: Idatzitakoak zerbait begiztatu eta momentu honetan eta hemen sorrarazten dizkidan gauza batzuk ozenki zehaztuko ditut. Laburki joango gara, baino zatika.”

1. Duela 50 urte, 1971-an estreinatua, nire aspaldiko lagunak diren Enkarni Genua eta Manolo Gómez, bere senarrak, (“TXOTXONGILLO”) taldea osatu zuten. 1978an “ERREKA MARI”, euskera hutsean, umeentzako sortu eta idatzitako ipuina antzeztu zuten. Nahiko meritua Euskalerrriko Adiskideen Elkarteko kidea izateko, eta etenik gabeko jarraipena

eman zioten gaur arte, urte haietan ia ez baitzegoen hau-  
rrentzat euskarazko ikuskizunik. Harridura, miresmena eta  
esker ona ez ezik, galdera batzuk ere sortzen dizkigu horren  
lan erraldoiak. Galdera nagusia: zerk eragin eta eragiten zion  
“TXOTXONGILLO” taldeari horrelako lanean hasi eta eten  
gabe aritzeko? Enkarnik eta Manolok beraiek airean utzi  
ziguten erantzuna: “begiak zabalik eta belarriak erne”.

2. 1983-an, “TXOTXONGILLO” taldea Tolosara hurbiltzen hasi  
zen eta TOPIC-eko “TITIRIJAI”-eri “MARIONA” eskaini zioten,  
umeak lasaitu edo geldiarazteko, jolastu eta benetan denbo-  
ra oso ondo pasa dezaten, aurrek gurtua, liluragarria eta  
xarmagarria izan da “MARIONA”, zorionez beteriko TOPIC-  
eko maskota hain zuzen.
3. Orain dela 4 urte, Enkarniri eskatu nion ezkutuan zegoen  
Joshe Mari IPARRAGIRRE BALERDIren panpina. “URRE-  
TXU”-arra izatez; bere aita Joshe Agustin Iparragirre zen,  
“IDIAZABAL”-go gozogina (“IZAL”goa, goiherritarrentzat),  
eta bere ama, Manuela Francisca de Balerdi, “GAVIRIA”-koa.  
Hainbat ume etortzen zirenez urtean zehar, bera TOPIC-en  
kartzelan egon zela jakiteko.

Bere garaiko aurkezpenak azaldu nahi dizkizuet, oinarritan  
itsatsia bai zegoen gure bertsolaria. Egun haietan Euskal Herria-  
ren izaera kolokan zegoen; euskaldunok gure artean borroka  
bizian genbiltzan eta bihotza sutu egin zitzaion IPARRAGIRRE  
jaunari, eta bere baritono ahotzarekin Gernikako Arbolari “zor-  
tziko” eder hau asmatuz, gitarraren laguntzarekin:

*Gernika'ko Arbola da bedeinkatua,  
Euskaldunen artean guztiz maitatua.  
Eman da zabal zazu munduan frutua;  
Adoratzen zaitugu, arbola santua.*

Eta, horren ordainetan 1855-an, Tolosako CIT-eko presonde-  
gi edo espetxean sartu zuten; gero, Euskaditik atzerriratua izan  
zen eta, Baionan, <sup>a</sup>Angelita<sup>a</sup> bergantinean ontziratu eta Ameri-

ketara joan zen (BUENOS AIRES-era) Angela Querejeta, Alegitarrekin ezkontzeko asmoz.

Nahiz eta euskal mundua benetan aberatsa izan musika tradizioetan, beti dago leku kutun bat Txistua, alboka edo txalapartarentzat (eskala musikalik gabeko egurrezko xilofonoa, egurrezko bat edo zenbait taula bi makil zutirekin jotzen dena, sekulako erritmoa abiatuz. Lizarrako Aita Olazaranek, Iruñan elkar ezagutzeko aukera izan nuen, bere buruari galdetzen zion txistua, gizadiaren instrumentu musikala? esaten zuen ziurtatu litekela “euskaldun txistuaren antzekoak agertzen direla hilotzetan lau edo bostgarren Asiriako dinastian (2.700 urte J.C. baino lehenago)” eta “45 txirulatik hilobi egiptoarretan bilatutakoak (2.500-dik 1.000 urtetara J.C. aurretik)”. IPARRAGIRRE, musikari eta olerkari trebea izaki, nahiz eta tresna euskalduna ez izan, gitarra bat bere eskuetan hartzen zuenean..., ¡ zer esanik ..., ez!

Disfruta ezazue, berehala ikusiko duzuen emankizun ikusgarriarekin, zeren jaialdia edertasunaren eramailea baita, mezua-  
ren argia, gardena eta garbia: Buruan edo bihotzean, tolosar denok daukagu beste “zortziko” hau barrualderaino sartua:

*Zibilak esan naute biziro, egoki,  
Tolosa'n bear dala gauza au erabaki;  
Giltzapean sartu naute poliki poliki;  
Negar egingo luke, nire amak ba'leki.*

**ZER/NOLA ETA ZERTARAKO.  
“EL POR QUÉ, CÓMO Y PARA QUÉ  
DE LOS TÍTERES”**

**Representación de la obra  
ERREKA MARI**

ENKARNI GENUA  
DE LA REAL SOCIEDAD BASCONGADA  
DE LOS AMIGOS DEL PAÍS  
*EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA*

Lección de Ingreso como Amiga de Número en la  
Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País  
Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea

Donostia – Victoria Eugenia Antzokia

2021-02-28



## AURKIBIDEA

- 1.– Txotxongiloek gugana heldu arte egin duten bidea.
- 2.– Txotxongiloen erabilpena: NOLA eta ZERTARAKO.
- 3.– Txotxongiloak helduen eskuetan ipuin protagonistak bezala.  
Esatebaterako Erreka Mari, Euskal Herriko azken lamina.
- 4.– Txotxongilo antzezlan bat egiteko nola gauzatu: Gidoia  
Pertsonaiak/Txotxongiloak (fisikoki; izateko era)  
Eszenaratzea/Puesta en Escena  
(Dekoratua, musika, argia, audio bisualak)
- 5.– Txotxongilolariek non eta nola egiten duten euren prestakuntza.

## SARRERA - HITZAK

---

2021eko Otsailan nik Enkarni Genua, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian eta Donostia Kulturak antolatuta, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartetik ohore haundi bat jaso nuen: Bascongadako Adiskide Numerarioa titulua.

Ohitura denez, ohore hori jasotzen duenak SARRERA HITZAK bat egin behar du. Nere kasuan arazo bat nuen. Nik banekien Victoria Eugenia Antzokian, haur pilo bat joango zirela ez ikasgai bat jasotzeko, Erreka Mari ikusteko baizik.

Baina noski! Txotxongilo munduaren inguruan gauza asko esan daitezkeela, baina ez ikuslego horren aurrean. Horregatik Bascongadei proposamena hau egin nien: Antzokian Erreka Mari, Euskalherriko Azken lamiaren istorioa antzetzuko genuke, baina ondoren idatziko nuke nere SARRERA IKASGAI.

Lehendabiziko partea, beteta dago. Neska mutilek ikusi eta gozatu zuten Txotxongillo Taldeko emanaldiarekin. Baita helduek ere. Baina helduek jakin nahiko dute emanaldien atzetik zer dagoen izkutatuta. Ze lanak egin behar dira horrelako emanaldia eszenatokian azaldu arte.

Eta orain hemen nauzue txotxongilolariek gordetzen dituzten zenbait sekretu edo hobe esanda egin behar duten lanak eszenatokian obra bat eskeintzeko. Ez, ez, txotxongiloekin ez da gertatzen bitxilorekin gertatzen den bezala. Lore xume horiek bat batean, inork konturatu gabe udaberriari azaltzen dira eta hor egoten dira gure bizitza alaitzen.

Txotxongiloak ere agertokian azaltzen dira baina hori egin baino lehen, txotxongilolariek hamaika lan egin behar dute. Hona ba hemen SARRERA - HITZA hauek, arte zoragarri honetaz zerbaít gehiago jakin dezazuen.

## 1. TXOTXONGILOEK GUGANA HELDU ARTE EGIN DUTEN BIDEA

Txotxongiloa gizakia bera bezain zaharra da. Ez dakigu zehaztasunez zein zen antzineko zibilizazioetan hilobietan aurkitu izan diren irudi txiki horien esanahia, kasu askotan, gainera artikulatuak zirelarik, baina dirudinez ni-aren irudikamenetik gertu daude.

Txotxongiloa hasiera-hasieratik ageri da gizakiaren historian misterioaren, ezezagunaren, mugagabearen munduarekin.

Dirudinez Goi Paleolitiko gizonak kobazuleetan egiten zituzten animalien irudimenak, ehizan laguntzeko, beharbada zeremoniaren bat antolatuko zenuteke suaren inguruan dantza egiten eta modu horretan paretan zeuden animalia hoieri mugimendu eta bizitza emango lieteke. Nork daki!

Itzal txinatarren hizkera oso zaharra da eta zibilizazioen hasieran dago. Como nos dice Eugenio Navarro, gran titiritero especializado en teatro de sombras “sobre el origen de este tipo de teatro no existe una conclusión única, aunque es generalmente aceptado su origen oriental, como lo demuestra la antigua y actual presencia de este tipo de espectáculos en países como Indonesia, India y China”.

Erdi Aroan, iluntasunezko mende haietan, kultura konmentu eta elizetan babestu zen, erlijiosoko istorioak errepresentatzen. Hasieran debekaturik eta esetsiak ziren panpinak pixkanaka- pixkanaka bere ospakisunetako konplizeak bihurtuz. Adibidez Eguberriak ospatzen zituzten antzerki mekanikoetan eta

misterioetako jardunaldi haundietan, baina zeremoni horietan txotxongiloak parte hartzea horri ez zuten denek ondo ikusten, eta Trentoko Kontzilioaren aginduz, elizetatik botatzera ere iritsi ziren.

Historia guztiaren zehar txotxongiloak presentek egon dira. Batzuetan erregeen palaziotan (Karlos V enperadorea antzerki honen mota zalea zen).

Askotan ere elkartearen kritikatzailleak izan ziren. Polixine-la, Judy, Kasperek, Pretuxka, eta nola ez Guignol Europa osoan ibili ziren euren komediak antzezten. Publikoa jende heldua zen. Haurrak handik eta hemendik txotxongiloen inguruan ibiltzen ziren baina ikuskizuna ez zegoen hurrei zuzenduta.

XIXgarren mendearen hasieran Siziliako “puppis” oso famatuak izan ziren. Haiek kontaktzen zituzten Carlo Magnoaren izugarrizko istorioak. Turkoen kontra egindako borrokak; Carlomagnok Peninsula pasa behar zituen zenbat pasadizoak; erlijio-sozko gaiak. Emanaldi horietara gizonak eta mutilak joaten ziren soilik. Emakumeak eta neskek ez ziren sekulan joaten.

XIXgarren mendean Espainian azaldu zen lehen aldiz Don Cristobal, Polichilenen familiaren oinordekoan. Haiantzako emanaldi hauek debekatuta zeuden.

Federico García Lorca idazleak ipini zuen Don Cristobal Literatura Unibersalean, zeren antzezlan batzuk idatzi zituen pertsonai horrekin.

II. Errepublikaren garaian txotxongiloak indarra hartu zuten zeren herri txikietara eraman zituzten txotxongiloen antzezlanak, plazarak, hospitaletarak, eskoletara eta gerra-frontetara jendeari animatzeko eta ilustratzeko

Garai hartan García Lorcak, Valle Inclanek, eta Rafael Albertik herri-genero hau berreskuratu eta literaturaren mailara jaso zuten.

Manuel de Fallak Cervantesen Kixoteko pasarte bati musika jarri zitzaion. Musika hura, geroago, txotxongiloentzat operafartsa gisa aurkeztu zen, Maese Pedoren Erretaula izenarekin.

Txotxongillo Taldea, guk hain zuzen ere, eduki genuen oho-rea 1989 urtean Musikako Hamabostaldian, Euskadi Orkestrarekin, Cristobal Haffter zuzendaria bezala edukiz, eta zenbait abeslariekin eta dekoratu eder batekin antzeztea.

Ikusten den bezala ibilgune luze honetan (hauek irudi batzuk dira besterik ez) haurrak ez ziren ikusleago zuzenak izaten. Eta askoz gazteagoa da eskolan erabiltzea helburu pedagogiko eta didaktikoekin

XX. Mendearen hasieran Maria Signorelli beste zenbait pedagogorekin hasi ziren txotxongiloen erabilpena eskoletara ekartzen zituen onurak aipatzen eta praktika jartzen.

Estatu Mailan esan daiteke Gipuzkoako Elizako Irakasleen Eskolan izan zen lehendabizikoz teknika hori bere Kurrikulum Diseñuan jarri zuena, batez gure kasuan, euskera, gure hizkuntza berreskuratzen laguntzeko baliabide bezala. Ni izan nintzen metodologi hori martxan jarri nuena.

## 2. TXOTXONGILOEN ERABILPENA. NOLA ETA ZERTARAKO

Orokorrean lau aukera daude:

- 1. Txotxongiloak neska-mutilen eskutan adierazpide bezala.
- 2. Txotxongiloak neska-mutilen eskutan ipuin protagonistak bezala.
- 3. Txotxongiloak jende helduen eskutan adierazpide bezala. Hemen sar daiteke euskera erakusteko era.
- 4. Txotxongiloak jende helduen eskutan (irakasleak eta txotxongilo taldeak batez ere) ipuinen protagonistak bezala.

Bainan orokorrean zertarako da ongarria txotxongiloen erabilpena?

Ikus dezagun hurrengo eskemak:

<b>ESKOLAN TXOTXONGILOAK ERABILIZ, NESKA MUTILEK</b>	
<b>Ezaguerak eskuratzen dituzte</b>	Jarduera bakoitzean erabakitzekoa
<b>Ahalmenak garatzen dituzte</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Adierazkortasuna:               <ul style="list-style-type: none"> <li>–ahozkoa</li> <li>–idatzizkoa</li> <li>–gorputzekoa</li> <li>–plastikoa</li> </ul> </li> <li>• Sormena</li> <li>• irudimena</li> <li>• Entzutekoa</li> <li>• Iritzi eta kritikakoa</li> </ul>
<b>Balioak eskuratzen dituzte</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sentikortasuna</li> <li>• Adierazpen-askatasuna</li> <li>• Poza</li> <li>• Edertasunaren maitasuna</li> <li>• Autokonfiantza</li> <li>• Talde lana</li> <li>• Onarpen kritikoa</li> <li>• Lan-arauak</li> </ul>
<b>Prozedurak garatzen dituzte</b>	Txotxongiloak egiteko behar diren guztiak: diseinatu, margotu, moztu, modelatu, josi, etab. Muntaketa bat egiteko behar diren guztiak: idatzi ahoskatu, prestatu, musika aukeratu, etab.



<b>MEDIANTE LA UTILIZACIÓN DE LOS TÍTERES EN LA ESCUELA, LOS NIÑOS Y LAS NIÑAS</b>	
<b>Adquieren conocimientos</b>	A determinar en cada actividad.
<b>Desarrollan capacidades</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• De expresión:               <ul style="list-style-type: none"> <li>–oral</li> <li>–escrita</li> <li>–corporal</li> <li>–plástica</li> </ul> </li> <li>• Creatividad</li> <li>• Imaginación</li> <li>• De escucha</li> <li>• De opinión y crítica</li> </ul>
<b>Adquieren valores</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sensibilidad</li> <li>• Libertad de expresión</li> <li>• Alegría</li> <li>• Amor a la belleza</li> <li>• Autoconfianza</li> <li>• Trabajo en equipo</li> <li>• Aceptación crítica</li> <li>• Normas de trabajo</li> </ul>
<b>Desarrollan procedimientos</b>	<p>Todos los necesarios para construir las marionetas: Diseñar, pintar, cortar, modelar, coser, etc.</p> <p>Todos los necesarios para realizar un montaje: Escribir, vocalizar, preparar, elegir música, etc.</p>

Liburuan aurrera egin baino lehen, eta txotxongiloak eskolan erabiltzeak gure neska-mutilei ekartzen dizkien mesedeei buruzko ohar labur hauek egin ondoren, beharrezkoa iruditzen zait zenbait puntu argitzea, eta txotxongilo-antzerkiaren, antzezle-antzerkiaren eta dramatizazioaren edo adierazpide dramatikoaren artean dauden diferentziak eta parekotasunak aipatzea, etengabe erabiltzen ari garen kontzeptu hauek argituz:

<b>TXOTXONGILO-ANTZERKIA</b>	<b>ANTZEZLE-ANTZERKIA</b>
-Adierazpide artistikoa.	-Adierazpide artistikoa.
-Testu bat behar du komunikatzeko.	-Testu bat behar du komunikatzeko.
-Eszenaratzea behar du.	-Eszenaratzea behar du.
-Argia, musika, elementu garrantzitsuak dira.	-Argia, musika, elementu garrantzitsuak dira,
-Protagonistak txotxongiloak dira.	-Protagonistak antzezleak dira.
-Jendaurrean aurkezten da.	-Jendaurrean aurkezten da.
-Zuzentzen zaion ikusleen adina obraren araberakoa da.	-Zuzentzen zaion ikusleen adina obraren araberakoa da.

TEATRO DE TÍTERES	TEATRO DE ACTOR
-Una forma de expresión artística.	-Una forma de expresión artística.
-Precisa un texto para comunicar.	-Precisa un texto para comunicar.
-Una puesta en escena.	-Una puesta en escena.
-La luz, la música, son elementos importantes.	-La luz, la música, son elementos importantes.
-Los protagonistas son títeres.	-Los protagonistas son actores.
-Se representa delante del público.	-Se representa delante del público.
-La edad del público a quien va dirigida depende del tipo de obra.	-La edad del público a quien va dirigida depende del tipo de obra.

Ikusiko zenutenez, txotxongilo antzerkiaren eta antzezle antzerkiaren artean dagoen diferentzia nagusia aurrenekoan, antzezleen orde, objektu bizidunak edo txotxongiloak daudela, eta horien atzean txotxongilolariak; hauek, txotxongiloei bizia emateko, lan handia egin behar dute, antzezleari dagozkion trebetasun asko garatuz, eta baita beste trebetasun jakin batzuk ere, txotxongilolari-lanari dagozkionak.

Nolanahi ere, gaur egun, obra askotan nahastu egiten dira bi estilo hauek, Hala, Saint-Exupéry-ren *Printze txikia* lanean, pilotua izan daiteke, baina istoriako gainerako pertsonalak txotxongiloak dira. Eta halaxe gertatzen da beste antzerti-lan askotan ere.

Bada ordea zuekin partekatu nahiko nukeen beste diferentzia bat, eta hura da, eskolako lanari begira bereziki, antzerkiaren (izan antzezle-antzerkia edo txotxongilo-antzerkia) eta adierazpen dramatikoaren artean dagoena.

Hasieratik esan nahi dut, ondoren adieraziko ditudan arrazoiengatik, haurren bizitzaren lehen urteetan, zortzi edo bederatzirte betetzen dituen arte gutxi gora behera, adierazpen dramatikoaren lana aire ustez interesgarriagoa dela antzerki-adierazpen hutsa baino.

<b>DRAMATIZAZIOA</b>	<b>ANTZERKIA</b>
-Adierazpen mota bat da.	-Adierazpen mota bat da.
-Gure bizipenak edo besterenak adierazteko modu bat.	-Gure bizipenak edo besterenak adierazteko modu bat.
-Gorputza, txotxongiloak, espazioa, ahotsa eta mugimendua erabiltzen dira.	-Gorputza, txotxongiloak, espazioa, ahotsa eta mugimendua erabiltzen dira.
-Jolasak eta inprobisazioak garrantzi handia dute.	-Testu bat buruz ikasteak garrantzi handia du.
-Ikusleak ez dira beharrezkoak.	-Ikusleak beharrezkoak dira.
-Garrantzitsuena prozesua da.	-Garrantzitsuena azken emaitza da.
-Pertzepzioa, behaketa, sormena, autokonfiantza garatzen dira.	-Pertzepzioa, behaketa, sormena, autokonfiantza garatzen dira, baina gutxiago, garrantzi handiagoa baitute memorizazioak, errepikapenak eta emaitzak.

DRAMATIZACIÓN	TEATRO
-Es una forma de expresión.	-Es una forma de expresión.
-Es una forma de expresar nuestras vivencias.	-Es una forma de expresar nuestras vivencias o las de otros.
-Se utilizan el cuerpo, los títeres, el espacio la voz y el movimiento.	-Se utilizan el cuerpo, los títeres, el espacio la voz y el movimiento
-Tiene gran importancia el juego y la improvisación.	-Tiene gran importancia el aprendizaje de memoria de un texto.
-El público no es necesario	-El público es necesario.
-Lo importante es el proceso.	-Lo importante es el resultado final.
-Se desarrollan la percepción, la observación, la imaginación, creatividad, autonomía y la seguridad en si mismo.	-Se desarrollan la percepción, la observación, la imaginación, creatividad, autonomía y la seguridad en si mismo, pero en grado menor, porque la memorización, la repetición y el resultado priman.

Adibide bat:

FATIMA, 7 URTEREKIN, JOLAS DRAMATIKOA LANTZEN DUENEAN:	FATIMAK, 7 URTEREKIN, ANTZERKIA EGITEN DUENEAN:
–Ikasturtean zehar, pertsonaia asko bereganatzen ditu, nolako jolasa egin hehar duen.	–Ikasturtean zehar, urte horien tokatzen zaión pertsonaia bereganatzen du.
–Pertsonala bakoitzarentzat nortasun eta bereziak bilatu behar ditu.	–Buru ikasi eta errepikatu behar ditu bere pertsonaia esaten dituenak.
–Pertsonala horiek guztiak eginez adierazpide desberdinak landuko ditu.	–Pertsonaia hori eginez bere pertsonalaren adierazpena landuko du.
--Jolas horretan bestelako pentsamolde bat landuko du, irudimena eta somena landuz .	–Irakasleak edo zuzendariak esaten diona egin beharko du, eta testua errepikatu ondo ikasteko.
–Antzerki-jolasak bere buruarekiko konfiantza izaten eta bere nortasuna garatzen lagunduko dio.	–Antzerkia egiteak bere buruarekiko konfiantza izaten eta bere nortasuna garatzen lagunduko dio, baina gutxiago, ikasturteko emanaldi bana baizik ez baita izango,



CUANDO FÁTIMA, DE 7 AÑOS, JUEGA A HACER TEATRO	CUANDO FÁTIMA, DE 7 AÑOS, HACE TEATRO
-A lo largo del curso se mete en la piel de muchos personajes según el juego que le toca hacer.	-A lo largo del curso se mete en la piel del personaje que le toca ese año interpretar.
-Para cada personaje tiene que buscar su propia personalidad y palabras.	-Tiene que aprender de memoria y repetir lo que dice su personaje.
-Haciendo todos esos personajes trabajará diferentes expresiones.	-Haciendo ese personaje trabajará la expresión de su personaje.
-En ese juego trabajará el pensamiento divergente, desarrollando la imaginación y la creatividad.	-Tendrá que hacer lo que dice el profesor o el director, y repetir el texto para aprenderlo bien.
-El juego del teatro le ayudará a tener confianza en sí misma y desarrollar su personalidad.	-El hacer teatro le ayudará a tener confianza en sí misma y a desarrollar su personalidad pero en menor grado, ya que se limitará a una representación por curso.

3. TXOTXONGILOAK HELDUEN ESKUETAN IPUIN  
 PROTAGONISTAK BEZALA. ESATEBATERAKO ERREKA MARI:  
 EUSKALHERRIKO AZKEN LAMINA

---

Lehen aipatu dugun 4. aukera, aztertuko dugu. “Txotxongi-  
 loa jende helduen eskutan ipuin protagonista bezala” Zeren hori  
 izan da gaur Victoria Eugenia antzokian egin duguna. Erreka  
 Mari, Euskal Herriko azken lamina.

## LAMINAK IZATEN OTE DIRA?

Istorio bat idazteko, antzerki bat taularatzeko, edozein diziplina artistikotan sortzeko, beti hari batzuei tiraka hasi behar duzu. Zure barruan dauden hariak, aleak, esperientziak eta inpresioak lanean jartzen.

Nik, hain xumea baina hain arrakastatsua den Erreka Mari-  
ren istorioa sortzeko hiru hari desberdin eduki nituen nire bar-  
rruan.

Lehenbiziko haria begietatik sartu zitzaidan

Txikia nintzela, nire Osaba Pacok auto bat zeukan lanerako. Garai hartan, 1940ko hamarkadan, auto bat edukitzea ez zen txantxetako gauza: Ni ume pribilegiatuta izan nintzen, igande eta jai egunetan, Chevrolet beltz dotore hartan paseatzera joaten ginen, osaba, izeba eta hirurok. Gehienetan, eta ez dakit zergatik, Tolosa aldera. Aurpegia kotxeko lehiatilari itsatsita egiten nuen Donostiatik Tolosarainoko bidea, ikusten nuen guztia zurrupatzen, barneratzen etxe zuriak, mendi berdeak, trenak, ardiak den dena irensten nuen, Halako batean, zerbait itsusia, ezatsegina, ezezaguna ikusi eta osabari galdetu nion, “Osaba, zer da hori?” “Hori? Erreka, Oria erreka”, erantzun zidan.

Erreka? Harrituta gelditu nintzen: Gris-zikin koloreko gauza hura, trastez beterik, sastrakaz inguraturik, hori al zen erreka? Sasi haietatik zintzilik zeuden zapi zikinak, paperak, zakarrak, plastikozko botilak, haiek al ziren erreka-aren lagunak? Hurrengo egunean, kasualitatez, eskolako maistrak lantxo bat jarri zigun: erreka bat margotu behar genuen, ni pozik. Bezperan ikusitakoa oso garbi neukan nire buruan, Beraz, nahikoa zen hori bera kopiatzea. Eta horrela egin nuen. Maistrari nire marrazkia eman nionean izututa esan zidan: “Zabortegi hori erreka bat al da? Ene! Baina zertan ari zara? Begira zure lagun Margaritari eta ikusi nolako erreka ederra margotu duen”.

Halaxe zen, alboan nuen Margaritak benetan marrazki ederra zeukan egina. Erreka urdinberdea, zuhaitzez eta lorez inguraturik, eta hori gutxi balitz, arraintxo bat saltoka ere ageri zen.

Nire baltan pentsatu nuen: postal bat

Hori ez da nik atzo ikusi nuen benetako erreka. Eta pentsamendu hura hor gelditu zen, nire barruan, bueltaka.

El segundo hilo que posteriormente me iba a conducir a escribir la historia de Erreka Mari, me llegó directamente al corazón y allí quedó enganchado. Mi madre, nacida en un pueblo tan pequeño de Castilla que ni siquiera aparece en el mapa, con 14 años se vino a servir a San Sebastián, al barrio de Añorga a cuidar de unos bebés recién nacidos. Sacada de sus raíces aterrizó en una tierra diferente en donde la lengua que ella hablaba, el castellano, era “extraña”, no vasca (*erdaldun/extranjero, extraño*), y en donde los llegados a ese pueblo eran “diferentes”, “*desberdinak*”, por lo que recibían también un trato distinto. “*Ez dira gure modukoak*”, “no son como nosotros”, como mucho más tarde iban a repetir Agustina y Kattalin, las vecinas del pueblo cercano al río de Erreka Mari, y uno de los motivos por los que una y otra vez intentaban despacharla de él. A mi madre le costó hacerse con esta tierra, y cuando se sentía de verdad ella como persona era cuando cada verano iba a su pueblo pequeño de Castilla, de donde la necesidad la había sacado, y se encontraba con sus iguales. Todo este grupo de gente, venidos de “fuera” recibía un nombre genérico despectivo que los discriminaba, “Son cacereños”, se decía simplificando para definir a “aquellos” a los que se consideraba de segunda categoría.

Después vinieron las Casas Regionales donde se reunían personas de procedencias similares. La Casa de Andalucía, La Casa de Extremadura, etc., para desarrollar en ellas sus actividades, canciones, sus bailes, en definitiva, su cultura, y para sentirse identificadas con sus iguales. Pero los principios fueron muy duros.

Hace no muchos años, alrededor del 2010, a bombo y platillo por parte de “las autoridades” se hizo un homenaje a todas estas gentes que poblaron Euskal Herria y que contribuyeron a su riqueza, “Gracias a todos vosotros por haber venido a nuestra tierra, en donde fuisteis acogidos con los brazos abiertos” oí decir a un político que no sé si tenía poca memoria o poca vergüenza, porque los que vinieron aquí eran eso: “cacereños”.

Hirugaren haria indarrez sartu zen nigan euskera ikasi nuen eta jabetu nintzanean Herri hau nirea ere bazela. Euskal literatura irakurtzen hasi nintzen eta mitologiaren mundu miragarrian murgildu nintzen erabat, Joxe Miel Barandiaranen eskutik ezagutu nituen pertsonaia harrigarri haiek: Basajaun, Tartalo, Mari, Herensugeak, Laminak... Azken hau aspalditik ari zen nire barruan mamitzen. Hala, gure taldea, TXOTXONGILLO Taldea, 1978. urtean ipuin berri bat plazaratzekotan zela hasi ziren piskanaka nik barruan neuzkan hari haiek mugitzen eta ia ia konturatu gabe istorio eder bat josten.

Nire baitan pentsatzen nuen: Ba ote liteke Euskal Herrian oraindik laminarik izatea? Ba ote liteke bazterren batean, ulertu ezinez eta zikinkeriaz inguraturik laminaren bat egotea? Nekez, Hainbeste zikinkeria, inbidia, eta marmarrekin ziur aski ezkutu dira laminak.

Eta pentsamendu horrek min egiten zidan. Ezin nuen onartu pertsonaia xarmant haiek hain bukaera tristea izaterik, Beharbada, guk, gizakiok, ez genuen mereziko, baina gutxienez lamin batek, bakarrak behintzat gelditu behar zuen gure artean, Ezin nuen onartu bidegabeak, natura mespretxatzen zutenak, besteenganako enpatiarik ez zutenak, irabazle ateratzea. Batek gutxienez, lamin batek sikiera bizi behar zuen oraindik gure artean.

Horrela jaio zen ERREKA MARI, EUSKAL HERRIKO AZKEN LAMINA, gure errepetorioko Ipuinik gogokoenetako bat, Istorio sotila, sentimental xamarra, gazi-geza, bihotzez idatzia, Bukaera ez du oso zorionsua baina ezta hain tristea ere, bizitza bezain itxaropentsua baita.

#### 4. TXOTXONGILO ANTZEZLAN BAT EGITEKO NOLA GAUZATU.

Gauza hauek kontutan eduki eta egin behar direna:

- Textu bat: Gidoia.
- Pertsonaiak: Txotxongiloak
- Eszenaratzea. *Puesta en Escena*:
  - Dekoratua
  - Argiak
  - Musika
  - Audio-bisual elementuak  
(diapositibak, bideoak e.a)

GIDOIAK:

Gidoia idatzi baino lehen kontutan eduki behar ditugun elementuak:

- a) Gidoi hori nori izango den zuzenduta: Hau da, ikuslegoa jende heldua izango den edo 6/7 urteko neska mutilak? Garbi dago planteamendua desberdina izango dela. Eta ez dugu ahaztu behar, lehen ikusi dugun bezala txotxongilo antzerkia egokiak direla edozein publikoentzat, eta gainera orain dela 100 urte, besterik ez, txotxongilo lana umeei eskeinita dagoela. Horregatik GIDOIA oso elementu garrantzitsua da. Gure taldeak, betidanik neska-mutilei 3/9 urte bitartean eskeini diegu gure lana. Baina hori gure aukera izan da. Badaude talde askok bere lana jende helduei antolatzen dutela. Hain zuzen ere Bergaran, hiru urtean behin, antolatzen den Helduei Txotxongilo Jaialdia arrakastan haundia dauka.
- b) Ondo kontatuko ipuin on bat, plazer haundi bat da. Askotan gure arreta jartzen dugu alderdi pedagogikoan. Eta ondo dago, baina irakurri esaldi dibertigarri eta egiazko hau:

*“Ipuina bere alderdi pedagogikoa mugatzea,  
Niloko Venusa anatomia lantzeko erabiltzea bezala da”  
(Sara Cone Bryant)*

- d) Plazerra, poza emateko maite dugun ipuina izan behar du.
- e) Gidoia nondik hasi?  
 Iturri batzuk kontutan eduki ditzakegu:
- Euskal mitologia
  - Gure irudimena. Hau da guk asmatutako argumentua gidoia bihurtu.
  - Beste edozein istorioa onartu eta egokitu.
  - Edozein istorioa. Errepikatuko dut. EDOZEIN.
- f) Guretzat idazten baditugu gure indarrak neurtu behar ditugu. Zenbat gara taldean? Zeintzuk dira gure posibilitateak? Dena dela, adibide bezala esango dizuet, Donosti Kultura, 2021 DFERIA n antzez lan bat ikusi dugula hiru aktorek egin da. Bi gizonen eta emakume batek, hiruren artean Napoleon Bonaparte istorio osoa kontatu ziguten. Nola da posible? Irudimena martxan jartzen.
- g) Azkeneko baldintza: umeentzat idazten badugu erakargarria izan behar da.

Ez ditu parraforik luzeak eduki behar, zeren hasieratik haurrak galtzen badira, beharbada ez ditugu errekuperatuko, eta euren arreta galduko dugu.

Hori dena errez idazten da baina gero dator praktika. Idatzi, ensaiatu, antzeztu, ebaluatu zuk zerorrek edo lagunei kontsulta eginez. Eta zuzendu, eta antzeztu berriro, eta zuzendu pixkanaka zuk nahi duzun ondorioa lortu arte.

PERTSONAIAK/ TXOTXONGILOAK:

*Txotxongiloa jarduteko eta irudikatze ahalmena duen irudi plastiko bat da*

(Margareta Nicolescu)

Beste era errezagoa definitzeko, “*Txotxongiloa bizitza duen panpina bat da*”. Txotxongiloa ez da beraz, gure gelan apaingarri bezala daukagun panpin zoragarri hori, ezta ere haurren gelan

dauden zenbait “pelutxe”. Baina txotxongilo bat izan daiteke haur batek duen pelutxe berezi bat, berarekin ohera joaten dena, bererarekin eta gelako beste panpinekin hitzegiten eta abenturak desberdin bizi dituena. Etxeko nagusiok panpin horri deituko diogu “umeak gehien maite duen panpina... bere maskota bait da”.

Eta nik esango nuke panpin hori TXOTXONGILO bat da. Hau da “*bizitza duen panpina*”

Teknikak ugari erabili ditzakegu txotxongiloak egiteko: Eskularruzko txotxongiloak, harizko txotxongiloak, marote, ha-gaska txotxongiloak, itzalak, objektuak eta abar luze bat. Gidoia, eszenatoki eta gure irudimenaren arabera sortuko ditugunak.

Pertsonak ere konpartitu dezakegu oholtza txotxongiloekin: Adibidez: Gure taldeak Printze txikia (Saint Exuperyk idatzita-koa) taularatu genuenean, Printze txikia eskularruzko (muñeco de guante) txotxongilo bat zen. Egazkilaria pertsona bat zen, aktorea.

Txotxongiloak baditugu eginak. Nahikoa al da horrekin? Ez, zeren bizitza eman behar dizkiegu:

- ahotsa
- mugimendua
- bihotza

#### *Ahotsa*

-Hauek dira kontutan izan behar ditugun baldintzak:

- Txotxongiloei ematen diogun ahotsa ez da gurea bezelakoa izan behar
- Txotxongiloari jartzen diogu ahotsa ez du gure eztarriari kalte egin behar.
- Ipuina kontatzen dugun bitartean txotxon giloaren ahotsa, beti berdina izan behar du.

-Pertsonai bakoitzak bere ahotsa desberdina dauka. Txingurri batek ez du hitz egingo leoi batek bezala. Saiatu behar dugu ahotsa aproposa aurkitzen.

- Ahotsarekin txotxongiloek euren sentimenduak espresatu behar dituzte: tristura, alaitasuna, beldurra, e. a.
- Ixiltasunak garrantzi handia du. Noiz, zertarako eta nola erabaki behar dugu gidoiaren araberean.

*Mugimendua:*

- Txotxongiloek mugimendu egoki bat ematea garrantzitsua da.
- Txotxongiloak ez ditugu mugitu behar mugitzeagatik. Bere mugimendua kontrolatuta egon behar da.
- Bi txotxongilo elkaturik badaude, hitzegiten duena mugitu behar dugu. Bestea ez horrenbeste, baina beti arretaz mantendu behar da, besteek esaten dutena entzuten.
- Normalean txotxongiloak ikusleago baina altuagoak egoten dira. Kontuz begiradarekin.
- Txotxongilak beste txotxongilokin hitz egiten duenean, berari begiratu behar dio, baina ahaztu gabe, hor publikoa dagoela eta noizean behin bere begirada behar dute.
- Funtzezko mugimenduak ere landu behar ditugu: etorri/joan; zerbait galtzen zaio; zerbait aurkitzen ditu; lo egiten du, esnatzen da, e.a.
- Txotxongiloek euren sentimenduak ere adierazi behar ditu mugimenduekin : Triste dago, pozik, haserre, negarra, muxuak ematen ditu, mimoso dago e.a.  
(Teknika hauek ikasi behar ditugu. Gero praktikarekin, pixkanaka aterako zaizkigu)

*Bihotsa. Indarra.*

Ez dugu ahaztu behar istorio bat kontaktzen ari garela, eta aktorekin gertatzen den bezala, gu, txotxongilolariok bizi, sufritu, negar egin, far egin maitatu e.a. egin behar dugu gure txo-



txongiloarekin. Hau da sentimendu guztiak transmititu behar ditugu txotxongiloen bidez.

Horregatik ipuina eta pertsonaiak maitatu behar ditugu. Horrekin *bihotza eta indarra* emago dizkiegu.

ESZENARATZEA. *PUESTA EN ESCENA.*

Gidoia idatzi ondoren eta txotxongiloak prestatzen eta egiten ditugun bitartean ikusleari nola kontatu behar diogu istoria erabaki behar dugu. Non kokatu, nondik aterako dira e.a.

Txotxongilo antzerkiaren eszenaratzea, hamaika era desberdinetan egin daiteke, zuzendariaren irudimenaren araberan. Mugarik ez daude, eta badaude irudimenarekin eta sormenarekin apurto behar ditugu.

Dena dela, gure artean ez dago ohitura haundia txotxongiloen lanak ikusten. Aprobata egin dezakegu.

10 lagunei proba hau proposatu: Txotxongiloaren emanaldi bat marraz dezaten paper batean.

Gehienek betiko kastelet bat margotuko dute eta barruan esku larruzko txotxongiloak azalduko dira.

Gaizki egina dago?. Ez, Hau da txotxongiloa egiteko ERA BAT baina EZ BAKARRA.

Hasteko txotxongilok eszenatoki osoa okupatu dezake.

-Txotxongiloek edozein lekutikan ager daitezke.

-Emanaldi batean, Teknika aldetik egindako txotxongilo desberdinak erabili ditzakegu.

-Txotxongiloak eta aktoreak nahastu dezakegu nahi dugun eran.

-Hau da... limiterik ez daude. Txotxongilo-eskolara joaten, edo antzezle-antzerkia eta txotxongilo-antzerkia ikustera joaten. Ondo pasatuko dugu eta gure irudimena aberasten joango da.

## **Eta Erreka Mari emanaldiaren eszenatokia nola asmatu genuen?**

Hasteko, Erreka Mariren gidoiarekin lau “eszenaratze” egin ditugu:

- 1) 1978. urtean, Erreka Mariren formatu handia asmatu eta estreinatu genuen areto handietan egiteko (Victoria Eugenia otsailean ikusi zenutena). Horretarako, ordura arte erabiliko kastelet tradizionala “puskatu” nahi izan genuen. lau eskailerekin (bi herriarentzat eta beste bi errekaarentzat) osatu genuen eszenatokia.
- 2) 2005 urtean, Musika Hamabostaldiaren eskaerari erantzunez, txalaparta (Lara Mitxelena eta Iziar Jauregi) erantsi genion obrari. Urte horretatik aurrera, eta funtzioak izan zuen arrakastaren ondorioz, formatu horrek laguntzen dio beti obrari.
- 3) 1985. urtean, Juan Cordero Castaño musikagileak, Eusko Jaurlaritzako *Antzerti* bilduman argitaratutako Erreka Mariren testua erabiliz, Haurren Opera bat konposatu zuen. Eusko Jaurlaritzak antolatutako Haurren Obra Musikalen Lehiaketara aurkeztu eta lehen saria irabazi zuen.

Horren emaitza Euskal Opera Sinfonikoa bihurtu zen. Bakar-lari, abesbatza, balleta, eszenografia eta operaren berezko osagai guztiak zituen lana. Manuel Gómez Martinezek hartu zuen zuzendaritza eszenikoaren ardura. Eta Euskal Herriko eszenatoki garrantzitsuenetan izan zen ikusgai.

- 4) 1990. urtean, Kultur-etxe eta Eskola ugariren eskaerari erantzunez, beste formatu bat prestatu genuen. Eskola eta Kultur-etxe haietan ez zuten Erreka Mariren formatu handia eszenaratzeko lekurik. Beraz, muntaia berri bat egin genuen, baina GIDOIA ETA PERTSONAIK bere horretan utzita. Aterpea duen edozein lekutan edo aretotan egin daiteke.

Beste aldetik Erreka Mariren ipuina ikastetxeetako irakasle askoren eskuetan dago, eta hamaika aldiz (ezinezkoa da kopuru bat esatea) irudikatzen da GIDOI BERBERAREKIN, PERTSONAIA BERBEREKIN eta eszenaratze desberdinekin. Hau da, haurren eta irakasleen ahalmenen eta sormenen arabera.

Modu honetan argi geratu da istorio berbera erabiliz milaka eszenaratze diferente egin daitezkeela.

ARGIAK, MUSIKA, IKUS-ENTZUNEZKOAK.

### *Argiak*

Bi ikuskizun mota desberdin azter ditzakegu:

- Kalean egiten diren ikuskizunak.
- Leku itxi batean egiten diren ikuskizunak.
- Azken hauei buruz hitz egingo dugu.

Emanaldi horietan normalean beti argiak erabili behar dira. Hau da, antzezle-antzerkian erabiltzen diren bezala. Horretarako argiaren diseinua egin behar dugu, zenbait eszena edo pertsonaia nola bizi arazi. Ezin dugu orokorki hitz egin. Baina bai azpimarratu argiak zer nolako garrantzia duen ikuskizun batean. Kalean txotxongiloa egiten dugunean ez dugu normalean argirik erabiltzen.

### *Musika*

Oso atsegina eta interesgarria da emanaldietan musika erabiltzea. Gure ikuskizun guztietan erabili izan dugu musika. Hasieran kanta herrikoiak edo guk emanaldi bakoitzarentzat asmatutakoak izan dira.

Azpimarratu beharrekoak dira Aitor Amezagak guretzat egin dituen musikak. Ederrak bezain egokiak.

Ondoren, musika-tresna desberdinekin lagunduta egin ditugu gure lanak askotan. Baita Orkestra desberdinekin ere. Besteak

beste, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Euskadiko Sinfonika Ganbera Orkestra, Et Inkarnatus Orkestra, Amadeus Orkestra eta Reina Sofia Orkestra.

Eta, esan bezala, musika-tresna desberdinekin ere antzestu ditugu gure ipuinak: biolina, akordeoia, txalaparta. Anne Landa eta Elai Gomez akordeoilariak, Lara Mitxelena eta Itziar Jauregi txalapartariak eta Miren Zeberio biolinjolea aipatu behar ditugu bereziki.

### *Ikus-entzunezkoak.*

Bai aktore-antzerkietan, baita txotxongilo-emanaldietan ere, ikus-entzunezkoek laguntza handia suposatzen dute. Gure ikuskizunetan gidoiaren arabera erabili izan ditugu diapositibak eta bestelako tresnak itsasoa islatzeko, izarrak islatzeko, elurra islatzeko, e.a.

Gaur egun, ikus-entzunezko tekniken erabilpenak benetako iraultza suposatu du. Antzerki-funtzioetan, orokorrean txotxongilo-funtzioena baino aurrekontu altuagoa dutenez, gauza miresgarriak egiten dira. Apenas ikus daiteke baso bat, hiri bat edo antzeko lekuren bat irudikatzeko erabiltzen ziren oihal margoturik. Duela gutxi *Movy Dick* obraren bertsio bat ikusi ahal izan genuen, eta bertan izugarria zen tximistak, euria eta ekaitza irudikatzeko modua. Alajaina, une batean ala bestean, ura eserlekuetaraino iritsiko zela iruditu zitzaigun.

Beste behin, Euskal Herriko Gorakada txotxongilo-taldea ikusi genuen obra berbera antzezten. Ez zuten aurrez aipatutako ikus-entzunezko teknika modernorik baliatu, baina maisulan itzela burutu zuten. Eta apaltasuna izan zen emanaldiaren gaioetako bat. Hori dela eta, elementuak nola eta noiz erabili aztertzea komeni da batez ere. Batzuetan “gutxiago gehiago da”. Zuzendariari dagokio gaiari buruzko ikerketa ona egitea.

## 5. TXOTXONGILOLARIK NON ETA NOLA EGITEN DUTEN EUREN PRESTAKUNTZA

---

Puntu eta aparteak erabiltzen ari naiz zuei pentsatzeko tar-teak uzteko. Izan ere, azalpen labur eta erraz hau entzunda, bat baino gehiagok galdetuko baitio bere buruari: Baina, hau guz-tia... nola eta non ikas daiteke? Ba al dago Eskolarik edo Uni-bertsitaterik metodologia horiek lantzeko? Ba al dago irakaslerik ikasketa hauek irakasteko?

Galdera horri beranduago helduko diot, orain Elkarte bati buruz hitz egin nahi dizuet eta. Txotxongiloaren munduko lan-gile guztiak biltzen ditu Elkarte horrek: txotxongilolariak, iker-lariak, zaleak... MUNDU GUZTIAN SUSTRAITUTA DAGO eta UNI-MA du izena.

*La UNIMA (Unión Internacional de la Marioneta) es una Organización Internacional no Gubernamental que agrupa a personas del mundo entero, las cuales contribuyen al desarrollo del arte de la marioneta, con el fin de, por medio de este arte, promover valores humanos, como la paz y el entendimiento mutuo entre los pueblos, sin importar la raza, las convicciones políticas o religiosas, la diversidad cultural y ello, respetando los derechos fundamentales del ser humano, tal y como se reconocen en la Declaración Universal de Derechos Humanos de las Naciones Unidas del 10 de diciembre de 1948.*

Hau da, Elkarte honek antolatzen ditu Kongresuak, Ikasta-roak, Laguntzak eta lanbidea hobetzeko beharrezko den edozer.

Nahiz eta erakunde bakarra izan, nazio mailako UNIMA des-berdinetan zatituta dago, eta zati bakoitzak bere proiektu pro-pioak ditu.

Espanian UNIMA FEDERACION ESPAÑA daukagu. Era be-rean, Erkidego bakoitzak bere UNIMA Autonomikoa ere ba-dauka, eta modu horretan, alde batetik, proiektu independien-teak egin ditzake, eta, beste alde batetik, nazio mailako proiekt-uak ere halakorik behar denean.

Horregatik, urtean zehar bospasei eskola topa ditzakegu: Udako eskolak, Udazkeneko eskolak, e.a. Astebete irauten dute, eta era guztietako prestakuntza eskaintzen diete gaurko eta biharko txotxongilolariei. Mundu osoan ospea duten adituek ematen dituzte eskola horiek.

Horrez gain, txotxongilo-emanaldiak ikustea da txotxongilolariaren ezagutza aberasteko eta hedatzeko modua. Euskal Herrian NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDI hauek ditugu: Bilbokoa, Tolosakoa, Sestaokoa eta Bergarakoa (azken hau ikusle helduentzat bideratua).

Bukatzeko, zera esan nahi nuke: TOLOSAn (Gipuzkoa) TOPIC daukagu, Txotxongiloaren Zentro Integrala. Ehunka txotxongiloko Museoa dago bertan, txotxongilo-emanaldiak eskaintzen dituen Antzokia eta urtero azaroko azken astean ospatzen den TITIRIJAI (Txotxongiloaren Nazioarteko Jaialdia) ere bai. Artxi-bo itzela ere badauka TOPICek, eta bertan gordetzen ditu milaka kartel, dokumentu, bideo, argazki... Guzti-guztia behar den moduan digitalizatua eta nahi duenaren eskura gainera.

Gauza asko baditugu ere, amets bat bizirik dago: txotxongi-loekin egindako lanari eskainitako Eskola. Eta litekeena da etorkizunean amets hori egia bihurtzea.

Funtsean, edozein artetan gertatzen dena gertatzen da txotxongilolaritzan. Gizaki batek, hainbat margorekin, obra ahaztezina egin dezake ala ez; 7 nota erabiliz, melodia zoragarri bat egin dezake ala ez; eta, 4 trapu eta kartoizko 3 txotxongilo baliatuta, artearen bidez bihotz-bihotzeraino sartuko zaigun lana egin dezake ala ez. Artearen bidea, batzuetan, ez dago gizaki guztien eskuetan. Sormenaren jeinuak eta Lanaren jeinuak guggandik gertu putz egin behar dute. Eta, hori gertatzen bada, haien haizeak harrapatuko gaitu.

*Enkarni Genua.*

Txotxongilolaria, eta Geografla eta Historian Lizenziatua  
Deustoko Unibersitatean.

Egilearen esperientziatik abiatuta idatzi da lan hau, baita egileak berak editatutako lan hauetatik abiatuta:

Enkami Genua. “Altxor bat eskuartean” Ed. Erein.

Enkarni Genua: “Un tesoro en nuestras manos”. Ed. Erein.

Enkarni Genua. “Bene benetan katua berbetan”: Dramatizazioa koadernoak: 1,2,3,4,5,6. Ed. Elkar.

Enkarni Genua: “Ka1ean gora, kalean behera” Euskaraz jolasteko liburua: 1,2. Ed. Elkar.

Karme1e Cruz, Enkami Genua: TOPIC ikastaro desberdinak egiteko zenbait apunte.

## **BIBLIOGRAFIA OROKORRA:**

Acuria. “Juan Enrique”. Aproximación al arte de los títeres. Ed. Pueblo y educación.1990.

Artiles: Fredy. “Títeres: historia, teoría y tradición. Ed. Teatro Arbolé Beard. Ruth: “Psicología evolutiva de Piaget”. Ed. Kapelusz

Diaz Navarro. Mari Carmen. “Mi Escuela sabe a Naranja” Ed. Grao

Mantovani, Alfredo: “El teatro un juego más”. Ed. Nuestra Cultura.

Rodari, Gianni. “La gramática de la fantasía”. Ferran Pellisa editor.

Paricio Paco. “Títeres y demás parientes”. Ed. Pirineum Editorial y Titiriteros de Binéfar.

Signorelli, Maria. “El niño y el teatro”. Ed. Universitaria de Buenos Aires.

## **Aldizkaria:**

FANTOCHE, diversos números. Ed. Unima Federación España  
E pur si mouve. UNIMA internacional.